

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Foru Aginduak

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

6.266

780/2005 FORU AGINDUA, irailaren 16koa, Legutianoko udal planeamenduaren ordezkoko arauen "Lladie" S1-4 sektoreko plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Alkateak 2004ko urriaren 28an emandako ebazpen baten bidez Legutianoko ordezkoko arauen "Lladie" S1-4 sektoreko plan partzialaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zen, baita espediente hori hamabost egun jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarki bana argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2004ko azaroaren 24koan (136. zenbakia), El Correo egunkarian, 2004ko azaroaren 16koan, eta udaletxeko iragarki taulan. Halaber, eragindako jabeen zuzenean jakinarazi zitzaizkien.

Bigarrena.- Espedientea aztergai egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta, behin betiko onarpena eman diezaioten, Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen 2005eko martxoaren 1eko bilkuran. Espediente horri 2005eko martxoaren 11n eman zioten sarrera foru aldundian.

Hirugarrena.- Planak eragina du foru bideetan, baina ez dago espedientearen errepide alorraren eskumena bere gain daukan organoaren txostenik, derrigorrezkoa den bezala, eta, horregatik, 2005eko apirilaren 6an eskatu egin zen. Eskatutako txostenari 2005eko uztailean 5ean eman zitzaion sarrera Hirigintza Zuzendaritzan.

Laugarrena.- Era berean, administrazio espedientea osatu gabe egonik, hutsune dokumental horiek zuzentzeko eskatu zitzaion udalari 2005eko martxoaren 18an, eta udalak 2005eko ekainaren 14an egin zuen, baina ez osorik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Plan partzial honek era xehekatuan antolatzen du ordezkoko arauetan industriarako lurzoru urbanizagarri modura sailkatu den "Lladie" S1-4 sektorea.

Bigarrena.- Aurkeztutako dokumentazioa hirigintza alorreko legerian ezarritakoarekin eta ordezkoko arauarekin alderatu ondoren, zazpigarren oinarrian adierazitako nabarduraz gain, haien artean kontraesanik ez dagoela ikusi da, ez forman ez edukian.

Hirugarrena.- Espedientea Aldundian sartu ondoren, bi txosten sektorial jaso dira: batetik, ADIFek, tren azpiegituren administratzaileak, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko trenaren bideak sektorean izango duen eraginari buruz egindakoa, eta, bestetik, hirugarren aurrekarian aipatutakoa, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egina.

Laugarrena.- ADIFek adierazten duenez, abiadura handiko bidearen plataforma eraikitzeko proiektuak (AHB proiektua, hemendik aurrera) A-627 errepidearen trazatua aldatzea aurreikusten du, bi azpiegituren bidegurutzearen arazoa konpontzeko, bai eta ibilgailuentzat A-3006 errepidetik sektorea zeharkatzen duen tunelaren ahora larrialdi-bide bat egitea ere.

Azpiegitura horrek sektorean eragin handia izango duela nabarmentzen da; A-627 errepidearen gaineko bide-zubia eraikitzea garrantzi handikoa izango da bereziki, zeren, errepide horren trazatua nahitanez aldatu behar da, jabetza publikoko aldean definituak, zortasun aldeak eta alde afektatuak aldatuko baitira eta Condesaren instalazioetara iristeko bide berria eraiki behar da. Sarbide hori egiteko, abiadura aldatzeko erriak eta ezkerretara biratzekoak eraikiko dira, Herrilan eta Garraio Sailak horri buruz ezartzen dituen irizpideen arabera.

Beste alde batetik, ADIFek, tren azpiegituren administratzaileak, sektorean egin beharreko obrak ezpazteko tren erreserba inbadi-

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

6.266

ORDEN FORAL 780/2005, de 16 de septiembre, en relación con la aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector S1-4, Lladie, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Legutiano.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Resolución de Alcaldía del día 28 de octubre de 2004 se acordó aprobar inicialmente el expediente de Plan Parcial del Sector S1-4, Lladie, de las Normas Subsidiarias de Legutiano, y someterlo a información pública por el plazo de quince días, hecho que fue practicado mediante los anuncios publicados en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 136, de 24 de noviembre de 2004, en el periódico El Correo, de 16 de noviembre de 2004, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, así como la comunicación personal a los propietarios afectados.

Segundo.- Durante el período de información pública no fueron presentadas alegaciones, procediendo el Ayuntamiento, en la sesión plenaria celebrada el 1 de marzo de 2005, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 11 de marzo de 2005.

Tercero.- Afectando el Plan a la vialidad foral y no constando en su expediente el preceptivo informe del Órgano competente en materia de Carreteras, en fecha 6 de abril de 2005 fue solicitado aquél. En fecha 5 de julio de 2005 el informe mencionado tuvo entrada en la Dirección de Urbanismo.

Cuarto.- Asimismo, encontrándose el expediente administrativo incompleto, en fecha 18 de marzo de 2005, se requirió del Ayuntamiento la subsanación de las lagunas documentales, cosa que realizó de modo incompleto el día 14 de junio de 2005.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial ordena pormenorizadamente el Sector S1-4, Lladie, clasificado y calificado por las Normas Subsidiarias como suelo apto para urbanizar industrial.

Segundo.- Confrontada la documentación técnica aportada con la legislación urbanística y las Normas Subsidiarias se ha comprobado que, salvo el matiz expresado en el fundamento séptimo, no existen contradicciones entre ellas, tanto en lo que se refiere a su contenido material como formal.

Tercero.- Con posterioridad a la entrada del expediente en la Diputación, se han recibido dos informes sectoriales: el emitido por ADIF, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias, referente a la incidencia de la "Línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián (LAV)" en el Sector y el mencionado en el Antecedente Tercero de la Dirección de Obras Públicas y Transportes.

Cuarto.- Según manifiesta ADIF, el "proyecto de construcción de la plataforma de la LAV" (en adelante proyecto LAV) prevé la modificación del trazado de la carretera A-627, a fin de solventar el cruce entre ambas infraestructuras y un acceso rodado de emergencias desde la carretera A-3006 a la boca del túnel que atraviesa el Sector.

La repercusión que esta infraestructura va a tener sobre el Sector es evidente; es especialmente relevante la construcción del viaducto sobre la carretera A-627 porque, al alterar inevitablemente la modificación del trazado de ésta, deberá conllevar el cambio de la definición de las zonas de dominio público, servidumbre y afección y la construcción de un nuevo acceso a las instalaciones de Condesa que en atención al rango de la carretera se realizará mediante la construcción de carriles de cambio de velocidad y de giros a la izquierda, de acuerdo con los criterios que a este respecto mantiene el Departamento de Obras Públicas y Transportes.

De otro lado, el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) advierte de la invasión de la reserva ferroviaria por parte de los

tzen duela ohartarazten du. Antza denez, ondorio horretara ez da iristen plana eta AMB proiektua erkatuz, baizik eta aurreikusitako urbanizazio eta eraikuntza obren proiektuak (prestatze lanetan) eta AMB erkatuz. Beraz, gaurko egunean ez dago ziur esaterik bi jardueren artean kontraesana dagoenik, baina egia da halakorik izan daitekeela eraikinak eta instalazioak jartzeko behar diren lur-berdinketak egitean.

Horren ondorioz, plan partzialak, ADIFekin koordinaturik, neurri egokiak jaso beharko ditu urbanizazio obren ezpondek tren erreserba (edo desjabetzaren lerroa) errespetatzen dutela bermatzeko edo ezponda horiek AMB proiektuarekin bateragarriak direla frogatzeko.

Bosgarrena.- Beste alde batetik, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak plan partziala hurrengo puntuetan aldatzeko eskatzen du bere txostenean:

A- Abiadura aldatzeko erraiak eta ezkerretara biratzekoak jartzea Condesaren instalazioetara A-627 errepidetik iristeko errepideetan.

B- Sektorearen barne bideetatik irtenbidea jartzea hango men-debaldeko hiri gune industrialera iristeko sarbideari eta A-627 eta A-3006 errepideak batzen dituen ekialdeko bidera iristeko moduari.

C- Gutxienez zortzi metro zabal duen zerranda bat derrigorrezko lagapeneko espazio libre publikotzat hartzea. Zerranda hori A-627 errepidearen lur-berdinketaren kanpoko ertzetik neurtuko da, eta errepide horren jabari publikoko aldea eta zortasun aldea izango da.

D- Condesaren instalazioetatik hegoaldera proiektatuta dagoen linea elektrikoa, trazatua A-627 errepidearekin paraleloan duena, eraikuntza lerrotik urrunago jartzea.

Txosten horren azterketari ekin aurretik, komeni da oroitaraztea sektore hori eta N-240 eta A-3006 errepideei dagozkien zenbait aldaketa egin zirela planeamenduko ordezkio arauak behin betiko onartu zituen ebazpenean, errepideen eskumena duen organoaren eta udalaren artean lortutako akordioaren fruitu.

Horrela bada, planak akordio hori eta planeamenduko ordezkio arauak zintzo betetzen dituen argitzea da lehenengo kontua, arau horiek guztiz bat baitzetozen bai urbanismoari buruzko legeriarekin bai errepideei buruzko legeria sektorialarekin.

Zehatzago esanda, ebazpenak eta ordezkio arauen testu bateratuak "Lladie" SI-4 sektoreari egiten dio erreferentzia. Honela dio hitzez hitz:

"6.7.4. A-3006 errepidetik SI4 eremuko industri lurzorura sartzeko bide bakarra egongo da eta handik abiatuko da, barruko bideez eta beharrezko diren zerbitzu guztiez baliatuz, aurreikusitako industria eremu osora eta ondoan dagoen Alberdi S.A. enpresaren instalazioetara heltzeko bideak."

Plana aztertutik, aurreko testu horretan dauden bi baldintza bete direla ondorioztatzen da berehala.

Seigarrena.- Baldintza horiek bete direla ondorioztatuta, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak proposaturiko aldaketen azterketari ekin behar zaio berriz.

Haietako lehenengoa da korapilatsuen, Condesak gaur egun dituen instalazioetan eragina duelako. Hasiara batean, errepidearen sarbidea urbanistikoki sektoretik kanpo dagoen eremu batera aldatzeko eskaera baldintza bete ezina da, lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko 6/98 Legeak, uztailaren 13koak, 18. artikuluan finaturiko lurzoru urbanizagarriaren jabeen betebeharetatik hara baitago.

Hala ere, Condesa SAK gaur egun dituen instalazioak eta sektorean geroko aurreikusten direnak multzo jarraitu bakar bat osatuko dute, horrela ondorioztatzen baita planak dakartzan planoetatik, eta, zehatzago esanda, "azken irudia (balio arauemailerik gabeko plano)" izeneko eta II.4 zenbakiko planotik. Beraz, ezinbestez ondorioztatzen denez, sarbide horrek jarduera urbanistikotik kanpoko sistema orokorrekin lotzen du sektorea.

Horregatik, AMB proiektuaren zubia eraikitzeak errepidean eraginik ez balu leku horretan, edo, edozein arrazoi dela bide, denbora gehiegiz atzeratuko balitz, sektoreak oraingo trazaturako sarbidearen aldaketa hartu beharko luke bere gain, eskatutako moduan.

Zazpigarrena.- Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak proposaturiko aldaketetako bigarrenari dagokionez, A-3006 errepidetik indus-

terraplenes o taludes de las obras previstas en el Sector. Al parecer, a esta conclusión no se llega mediante la confrontación entre el Plan y el proyecto LAV, sino entre los proyectos (en elaboración) de las obras de urbanización y/o edificación previstas y el de la LAV. Por tanto, hoy no se puede afirmar con certeza que exista una contradicción entre ambas actuaciones, pero sí existe el peligro de que pueda haberla a la hora de realizar las explicaciones necesarias para la implantación de las edificaciones y las instalaciones.

Como consecuencia, el Plan Parcial, en coordinación con ADIF, deberá aportar las medidas oportunas que garanticen que los taludes de las obras de urbanización respeten la reserva ferroviaria (o línea de expropiación) o que demuestren que son compatibles con los previstos en el proyecto LAV.

Quinto.- Por otra parte, la Dirección de Obras Públicas y Transportes en su informe solicita que se modifique el Plan Parcial en los siguientes extremos:

A- Contemplar carriles de cambio de velocidad y de giros a la izquierda en el acceso a las actuales instalaciones de Condesa desde la carretera A-627.

B- Resolver desde la vialidad interior del Sector el acceso a la zona urbana industrial situada a su lado Oeste, y los del camino situado al Este que une las carreteras A-627 y A-3006.

C- Calificar como espacios libres públicos de cesión obligatoria una franja de, al menos, ocho metros de anchura medidos desde la arista exterior de la explanación de la carretera A-627, correspondientes a las zonas de dominio público y de servidumbre de ésta.

D- Situar la línea eléctrica proyectada al Sur de las actuales instalaciones de Condesa, cuyo trazado discurre paralelo a la carretera A-627, a una distancia superior a la línea de edificación.

Antes de proceder al análisis de este informe, conviene recordar que la resolución que aprobó definitivamente las Normas Subsidiarias introdujo unas modificaciones referentes a este sector y a las carreteras N-240 y A-3006 que fueron fruto de un acuerdo alcanzado entre el Ayuntamiento y el órgano competente en materia de Carreteras.

Por tanto, la cuestión debe ceñirse en primer lugar a dilucidar si este Plan cumple fielmente el mencionado acuerdo y demás determinaciones de las Normas Subsidiarias, las cuales casaban perfectamente con la legislación urbanística y la sectorial de Carreteras.

En concreto, la resolución (y el Texto Refundido de las Normas) se refiere al Sector SI-4, Lladie, en estos términos:

"6.7.4. Disponer un acceso único a todo el suelo industrial del ámbito SI4 desde la carretera A-3006, desde la cual, y a partir de toda la vialidad interior y de servicio que se requiera, deberá servirse el acceso a toda la extensión del citado ámbito industrial previsto, así como a la instalación industrial de la empresa colindante Alberdi S.A."

Analizado el Plan se deduce de inmediato que ha dado cumplimiento a las dos condiciones contenidas en el texto transcrito.

Sexto.- Hecha aquella comprobación, ha de volverse al examen de las modificaciones propuestas por la Dirección de Obras Públicas y Transportes.

La primera de ellas es la más compleja porque atañe a las actuales instalaciones de Condesa. En principio, exigir en este Plan la modificación del acceso de la carretera a un ámbito ajeno urbanísticamente al Sector es una condición que, por rebasar los límites de los deberes de los propietarios del suelo urbanizable fijados en el artículo 18 de la Ley 6/98, de 13 de julio, sobre régimen del suelo y valoraciones, no podría ser atendida.

Sin embargo, de los planos aportados por el Plan, en concreto el número II.4 de "Imagen Final (Plano no normativo)" se deduce que las actuales instalaciones de Condesa S.A. y las futuras previstas en el Sector van a formar un todo único y continuo. Por tanto, es inevitable concluir que, de hecho, tal acceso se convierte en una conexión del Sector con los sistemas generales exteriores a la actuación urbanística.

Es por ello que, en el supuesto de que la carretera en este lugar no se viera afectada por la construcción del viaducto del proyecto LAV o, por la causa que fuere, éste se demorase excesivamente en el tiempo, la modificación del acceso al actual trazado deberá ser asumida en los términos solicitados como carga por el Sector.

Séptimo.- En relación con la segunda de las modificaciones propuestas por la Dirección de Obras Públicas y Transportes, cabe de-

trialdera eta ondoko bidera iristeko bideak jarduera honetatik erabat aparte daude, eta, beraz, betebeharrak ezin dira haren gain jarri.

Hala ere, plan partzialak ekialdeko bidea bere eremuaren barruan sartu du, horrela eginda ordezkio arauetan adierazitako mugak aldatzen baditu ere. Eta une honetatik aurrera eska daiteke bidetik A-627 eta A-3006 errepideetara iristeko bideek agertzen dituzten arazoak irtenbidea emateko.

Zortzigarrena.- Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak jabari publikoko aldean eta zortasun aldean kokaturiko lurrak derrigorrez eta doan lagatzeari buruz egindako eskabidea ezin da aurrera joan, 6/98 Legearen 18. artikuluan edo planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritakotik hara baitoa.

Hori dela eta, planaren esparrua jabari publikoko aldetik hasten da, eta alde hori definizioz bide-komunikazioen sistema orokorraren barrukoa da. Sistema horretatik kanpo eta sektorearen barruan, zortasun aldean ageri da lehendabiziko lekuan. Alde hori, nahiz Arabako Errepedeen 20/90 Foru Arauaren 39. artikuluan esandakoaren arabera definitu behar izan, titularitate pribatukoa da.

Beste alde batetik, bai eskatu behar da zortasun aldean eraikinik gabe eta geroko lur-zatien itxiturarik gabe gelditzeko, eta, beraz, "zonakatzea eta xehekatutako erabilerrak" II.1 planoan (izaera arau-mailerik gabe) iradokitzen den bide sistema handik kanpo kokatu beharko da.

Egia esateko, bi alde horiek markatzeari buruzko oharpenek izaera teorikoa dute eta gaztigu gisa egiten da, ez baita posible planeamenduko ordezkio arauetan eta Errepedeen Foru Arauaren finkatutako mugapen baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatzea, erabili den eskala hain txikia izanik (1/2000).

Bi alde horien mugapen zuzena bermatuta dagoela frogatzeko, planean agiri zehatz egokiak aurkeztu beharko dira.

Bederatzigarrena.- Proposatutako aldaketetako azkenekoari dagokionez, esparrutik kanpoko zerbitzua izan arren, azpiegitura hori jabeak bere gain hartu beharreko betebeharren barrukoa da guztiz, 6/98 Legearen 18. artikuluko 3. puntuan adierazitakoari jarraituz.

Ildo horretan, eta zerbitzu pribatua dela eta, planak eraikuntza lehoraino eraman beharko du atzera, edo, bestela, beste puntu bat aukeratu beharko da energia elektriko hornidura sare nagusiarekin lotzeko.

Horregatik guztiagatik, eta aitorzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- "Conducciones y Derivados, SA" enpresak sustatu eta Legutianoko Udalak izapidetu duen "Lladie" SI-4 sektoreko plan partziala, udal planeamenduko ordezkio arauen barrukoa, behin betiko onartzea, honako aldaketak egin ondoren:

I. Aukeratzten den irtenbideak sektorea urbanizatzeko obren ezpondek tren erreserba errespetatzen dutela bermatu behar du edo, bestela, AMB proiektuan aurreikusitakoekin bateragarriak direla frogatu.

II. AMB proiektuak Condesaren instalazioetatik A-627 errepidera iristeko bidean eraginik ez badu edo zubiaren eraikuntza denbora gehiegiz luzatzen bada, iristeko bide berriaren diseinua gaur egungo errepidearen trazatuaren gainean egingo da, abiadura aldatzeko erraiak eta ezkerretara biratzekoak sortzeko. Kasu horretan, obra hau egiteak sektorearen karga izaera izango du.

III. Sektorearen ekialdean dagoen errepidera iristeko bideak sektorearen barrutik egin behar dira.

IV. Agiri zehatz egokiak aurkeztu behar dira, jabari publikoko aldean, zortasun aldean eraikuntza lerroa Arabako Errepedeen 20/90 Foru Arauaren 38, 39 eta 42. artikuluetan finkatutako irizpideekin bat mugatu eta definitu egin direla frogatzeko zein bermatzeko.

Zortasun aldean ez da eraikinik edo itxiturarik egongo. Horrelakoak kanpoko ertzetik hara jarriko dira.

V. Condesaren gaur egungo instalazioen hego-mendebaldean aurreikusten den elektrizitate linearen tarteari dagokionez, bi irtenbide hauetako bat hautatu behar da:

A- Linea eraikuntza lehoraino atzera eramatea.

B- Energia elektriko hornidura sare nagusiarekin beste puntu batean lotzea.

cir que los accesos de la carretera A-3006 a la zona industrial y al camino adyacentes son cuestiones totalmente ajenas a la presente actuación por lo que son deberes que no pueden cargarse a ella.

No obstante, el propio Plan Parcial, modificando los límites que le han señalado las Normas Subsidiarias, ha introducido dentro de su ámbito el camino situado en su lado Este. Es a partir de este momento cuando si se le puede exigir que resuelva los problemas que plantean los dos accesos del camino a las carreteras A-627 y A-3006.

Octavo.- No puede prosperar la petición de la Dirección de Obras Públicas y Transportes referente a la cesión obligatoria y gratuita de los terrenos situados en las Zonas de Dominio Público y de Servidumbre porque va más allá de lo que establece el artículo 18 de la Ley 6/98 o, en su caso, las Normas Subsidiarias.

A este respecto, el ámbito del Plan comienza a partir de la Zona de Dominio Público, la cual por definición pertenece al Sistema General de Comunicaciones Viarias. Fuera de éste y dentro del Sector aparece en primer término la Zona de Servidumbre que, aunque se ha de definir de acuerdo con lo establecido en el artículo 39 de la Norma Foral 20/90 de Carreteras de Álava, es de titularidad privada.

De otro lado, sí debe exigirse que la Zona de Servidumbre quede libre de construcciones y cierres de las futuras parcelas, por lo que la vialidad que (sin carácter normativo) se insinúa en el plano II.1, "Zonificación y Usos Pormenorizados", deberá ubicarse fuera de aquélla.

La verdad es que estas observaciones referentes al señalamiento de las dos Zonas antedichas tienen carácter teórico y se efectúa a modo de advertencia, pues dada la pequeña escala utilizada (1/2000) no es posible comprobar si se cumplen los requisitos de delimitación fijados en las Normas Subsidiarias y en la Norma Foral de Carreteras.

Para demostrar que la delimitación correcta de ambas Zonas queda garantizada, el Plan deberá aportar los documentos precisos pertinentes.

Noveno.- En lo que atañe a la última de las modificaciones propuestas, aunque se trate de un servicio previsto fuera del ámbito, constituye una infraestructura totalmente insertable dentro de los deberes que debe asumir el propietario, a tenor de lo señalado en el punto 3 del artículo 18 de la Ley 6/98.

En ese sentido, y en cuanto que se trata de un servicio privado, el Plan deberá retranquearlo hasta la línea de edificación o, en su defecto, elegir otro punto de conexión con la red general de suministro de energía eléctrica.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del Sector SI-4, Lladie, de las Normas Subsidiarias de Legutiano, promovido por Conducciones y Derivados, S.A. y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes modificaciones:

I. Aportar la solución que garantice que los taludes de las obras de urbanización del sector respeten la reserva ferroviaria o que demuestren que son compatibles con los previstos en el proyecto LAV.

II. En previsión de que el proyecto LAV no afecte al acceso a la A-627 desde las instalaciones de Condesa o la construcción del viaducto se demorare excesivamente en el tiempo, se aportará el diseño del nuevo acceso sobre el actual trazado de la mencionada carretera, con objeto de crear carriles de cambio de velocidad y de giros a la izquierda. En este supuesto la construcción de esta obra tendrá el carácter de carga del Sector.

III. Resolver los accesos rodados al camino situado al Este del Sector desde el interior de éste.

IV. Aportar la documentación precisa pertinente que demuestre y/o garantice que las zonas de Dominio Público y de Servidumbre y la línea de edificación se han delimitado y definido de acuerdo con los criterios fijados en los artículos 38, 39 y 42 de la Norma Foral 20/90 de Carreteras de Álava.

La zona de Servidumbre quedará libre de construcciones y cierres, éstos se situarán a partir de su arista exterior.

V. En lo que se refiere al tramo de línea eléctrica previsto al Suroeste de las actuales instalaciones de Condesa, adoptar una de estas dos soluciones:

A- Retranquear la línea hasta la línea de edificación.

B- Elegir otro punto de conexión con la red general de suministro de energía eléctrica.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio foru aldundiari espediente, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitaratu dadin.

Hirugarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurri gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berazterte-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua) foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, hilabete izango da honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 16a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 2005.- La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Zuzeneko Zergen Zerbitzua

(Sozietateen gaineko Zergaren eta Atxikipenen Atala)

6.290

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak 108. artikuluan xedatutakoaren ildotik, aipatutako artikuluko horrek adierazitako jakinarazpenak egiten ahalegindu arren administrazioari egotz ezin dakizkiokoen arrazoiengatik jakinarazi ezin izan direnez, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergapekoei edo haren ordezkoiei jakinarazten zaie deituta daudela ondoren zerrendatzen diren prozedurei dagozkien administrazio-egintzetara:

IFZ	IZENA	PROZEDURA
B01346592	ABASTECIMIENTOS Y CONTRATACIONES EN GENERAL, SL	2004ko 180 eredu eskatzea
B01350453	ADDASO SERVITECH, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
X00.972.957 B	ALCALÁ SÁNCHEZ, ANA CECILIA	2004ko 180 eredu eskatzea
G01344431	ALIMENTACIÓN GASTEIZ, SC	2004ko 180 eredu eskatzea
78.895.148 L	ALLENDE JORGE, JAVIER	2004ko 190 eredu eskatzea
B01367945	ALVADAVI, SL UNIPERSONAL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01274489	AMEGON COMPUTER SL	2004ko 180 eredu eskatzea
B01342054	ANT PLACE FACTORY, SL	2004ko 180 eredu eskatzea
16.266.023 D	APELLÁNIZ GONZÁLEZ, J. ANGEL	2004ko 190 eredu eskatzea
16.517.528 D	ARDANZA-TREVIJANO MORAS, BRUNO	FT-2004 itzultzeko komunikazioa
A01151935	ARPIN EUROPA, SA	2004ko 190 eredu eskatzea
G01024124	ASOCIACIÓN MÁQUINAS RECREATIVAS DE ÁLAVA AM	2004ko 180 eredu eskatzea
G81574261	ATLÁNTICO MULTIFONDO FONDO DE PENSIONES	2004ko 190 eredu eskatzea
B95003174	AULA DE FORMACIÓN AVANZADA, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01274562	AUTO CARROCERÍA TXOMIN, SL	2004ko 180 eredu eskatzea
G01225184	AUTOCARES DEL ZADORRA, SL	AI-2004 itzultzeko komunikazioa
G01340785	BAR RESTAURANTE MENDATE, SC	2004ko 180 eredu eskatzea
33.854.246 V	BARREIRO GANDOY, JESÚS	2004ko 190 eredu eskatzea
16.264.955 E	BARRIGA MIRÓN, FRANCISCO	2004ko 180 eredu eskatzea
18.595.536 J	BENITO ECHEVARRÍA, MIRIAN DEL CARMEN	2004ko 180 eredu eskatzea
B01298736	BENTOSTE GASTEIZ, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01368257	BIKAIN CANALIZACIONES Y OBRAS, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01332477	BISKALATZA, SL	Behin-behineko likidazioa: 2003ko FT-300241-05
B01327253	CANTINA ACRATA, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01356716	CARNICERÍA URANGO, SL	2004ko 190 eredu eskatzea
B01355536	CARPINTERÍA METÁLICA ARTURO BAÑARES, SL UNIPERSONAL	2004ko 190 eredu eskatzea
16.276.319 R	CARREÑO ORTIZ DE ZÁRATE, PEDRO MARÍA	Behin-behineko likidazioa: 2003ko FT-300075-05

Anuncios

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

Servicio de Tributos Directos

(Impuesto sobre Sociedades y Retenciones)

6.290

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero) no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la Administración y habiéndose realizado, al menos, los intentos de notificación exigidos por el citado artículo, por el presente anuncio se cita a los obligados tributarios o representantes que a continuación se relacionan, para ser notificados por comparecencia de los actos administrativos derivados de los procedimientos que figuran en la siguiente relación:

NIF	NOMBRE	PROCEDIMIENTO
B01346592	ABASTECIMIENTOS Y CONTRATACIONES EN GENERAL, S.L.	Requerimiento modelo 180 de 2004
B01350453	ADDASO SERVITECH, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
X00.972.957 B	ALCALÁ SÁNCHEZ, ANA CECILIA	Requerimiento modelo 180 de 2004
G01344431	ALIMENTACIÓN GASTEIZ, S.C.	Requerimiento modelo 180 de 2004
78.895.148 L	ALLENDE JORGE, JAVIER	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01367945	ALVADAVI, S.L. UNIPERSONAL	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01274489	AMEGON COMPUTER, S.L.	Requerimiento modelo 180 de 2004
B01342054	ANT PLACE FACTORY, S.L.	Requerimiento modelo 180 de 2004
16.266.023 D	APELLÁNIZ GONZÁLEZ, J. ANGEL	Requerimiento modelo 190 de 2004
16.517.528 D	ARDANZA-TREVIJANO MORAS, BRUNO	Comunicación devolución FT-2004
A01151935	ARPIN EUROPA, S.A.	Requerimiento modelo 190 de 2004
G01024124	ASOCIACIÓN MÁQUINAS RECREATIVAS DE ÁLAVA AM	Requerimiento modelo 180 de 2004
G81574261	ATLÁNTICO MULTIFONDO FONDO DE PENSIONES	Requerimiento modelo 190 de 2004
B95003174	AULA DE FORMACIÓN AVANZADA, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01274562	AUTO CARROCERÍA TXOMIN, S.L.	Requerimiento modelo 180 de 2004
G01225184	AUTOCARES DEL ZADORRA, S.L.	Comunicación devolución AI-2004
G01340785	BAR RESTAURANTE MENDATE, S.C.	Requerimiento modelo 180 de 2004
33.854.246 V	BARREIRO GANDOY, JESÚS	Requerimiento modelo 190 de 2004
16.264.955 E	BARRIGA MIRÓN, FRANCISCO	Requerimiento modelo 180 de 2004
18.595.536 J	BENITO ECHEVARRÍA, MIRIAN DEL CARMEN	Requerimiento modelo 180 de 2004
B01298736	BENTOSTE GASTEIZ, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01368257	BIKAIN CANALIZACIONES Y OBRAS, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01332477	BISKALATZA, S.L.	Liquidación Provisional FT-300241-05 de 2003
B01327253	CANTINA ACRATA, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01356716	CARNICERÍA URANGO, S.L.	Requerimiento modelo 190 de 2004
B01355536	CARPINTERÍA METÁLICA ARTURO BAÑARES, S.L. UNIPERSONAL	Requerimiento modelo 190 de 2004
16.276.319 R	CARREÑO ORTIZ DE ZÁRATE, PEDRO MARÍA	Liquidación Provisional FT-300075-05 de 2003